

**KONTRARREFORMA GARAIKO
LAPURTAR LITERATURAZ**

Topikotzat geratu izan da Euskal Literaturaren historian XVII. mendean letren munduak ez aurretik ezagutu ezta oso berandura arte berriro ezagutuko ez zuen loraldia izan zuela baieztatzen duena.

Historia horretan (horietan?) bertan esaten denez, loraldi-eremua iparraldera mugatu zen, "Donibane eta Ziburuko kostaldean, bai ere halaber *binterland* modura zuen Sara-aldeko lur barrenetan" (Mitxelena 1981, 288) hain zuzen, bertako euskalkiak ohore gehienak eraman zituelarik¹. Azpimarratua izan da, orobat, Lapurdiko herri zenbaitek tradizio berezi bana sortu zuela letren alor desberdinetan: Donibane Lohizunek biblia-itzultzaileak (Urte anglikanoa eta Haraneder), Ziburuk XVII. mendeko poeta erlijioso handienak (Etxeberri, Gazteluzar eta Argaignaratz, bertako koadjutorra).

¹ Liburutzat har daitezkeen berrogei obretatik gehienak (%75etik gora) nafarrera-lapurteran idatzita zeuden mende hartan. Hegoaldean, berriz, ez zen erreakziorik izan idatzizko produkzioari dagokionez: "Resulta sorprendente que, mientras en el País Vasco francés personas bien dotadas de talento y de saber desarrollan en el siglo XVII un movimiento literario importante aunque reducido casi al campo religioso, no se encuentran a este lado de los Pirineos más que traductores de catecismos que, a pesar de recurrir a cada paso al préstamo y al calco literal, parecen haber tropezado con muchas dificultades en su tarea" (Mitxelena 1960, 63).